# LEGEBILTZAR-TALDE BAKOITZAREN PROPOSAMENAREN LABURPENA

Uztartuko ditu, batetik, legezkotasun-printzipioa —eskubide historikoak (Espainiako Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarria eta Gernikako Estatutuaren Xedapen Gehigarria— eta, bestetik, printzipio demokratikoa eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarrek beren egitura eta bizikidetza-araubidea erabakitzeko eskubidea. Itunean eta demokrazian oinarrituko da. Testu politiko berriak hauek aitortuko ditu:

1.- Euskal Herriaren nazio-izaera eta -identitatea. Euskal Herria Europako herrien artean identitate propioa duen herria da, ondare historiko, sozial eta kultural berezia duena. 7 lurraldek osatzen dute eta, gaur egun, 3 eremu juridiko-politiko ezberdinetan daude, bi estatutan banatuta.

2.- Euskara Euskal Herriaren jatorrizko hizkuntza da. Hizkuntza ofizialaren izaera izango du. Herritarrek eskubidea izango dute euskara jakin eta erabiltzeko, eta hizkuntza-bizikidetza harmoniatsurako oinarriak ipiniko dira, erabilera errealagoa, eraginkorragoa eta berdinzaleagoa izan dadin.

3.- Euskal lurraldeen artean lotura politikoak eta lankidetza-harremanak ezartzeko eskubidea egongo da, gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren ongizatea garatu ahal izateko, eta Europar Batasunaren (EBren) ordenamenduan euskal Euroeskualdea eratuko da. Ordezkaritza-erakundeen —EAE, NFK, Iparraldeko Mankomunitatea— erabakiak errespetatuko dira, bai eta eremu bakoitzeko herritarren borondatea ere.

4.- Funtsezko eskubide eta betebeharrak nazioarteko eta EBko itun bidez aitortuko zaizkie euskal herritar guztiei. Itun horietan finkatutako dira bizikidetza demokratikorako eta gizarte-eskubideetan sakontzeko oinarriak. Euskal autogobernua printzipio eta balio hauen bidez gauzatuko da: askatasuna, gizon eta emakumeen arteko berdintasun benetako eta eraginkorra, demokrazia, aniztasun politikoa, justizia, bakea, elkartasuna, gizarte-kohesioa, garapen jasangarria...

5.- Europar Batasuneko organo eta erakundeetan zuzenean ordezkaritza izateko gaitasuna izango du, bai eta EBko zuzenbideko legeak ezartzeko eta betearazteko, eta egiturazko funtsak kudeatzeko ere. Halaber, ordezkaritza izango du nazioarteko erakundeetan ere, batez ere gai hauetan: hizkuntza, kultura, bakea, giza eskubideak defendatzea, lankidetza eta ingurumena —UNESCO eta abar—.Nazioartera zabalduko da eta beste estatu, nazio, herrialde eta eskualde batzuekin kanpo-harremanak izango ditu, eskumen-funts berriari jarraikiz. Euskal zentroak aintzatetsiko dira. Aintzatespen hori «*in foro interno in foro externo*» ereduan oinarrituko da; hau da, barnean aitortuta dagoen eskumena kanpoan ere islatu ahal izango da.

6.- Eskumen-funts berriak aukera emango digu euskal gizarteak XXI. mendean dituen erronkei aurre egiteko, Itun Politiko eta Itun Ekonomiko sendotuen bidez. Transferitzeko dauden gaiak hartuko ditu barne, legeria organikoak eta oinarrizkoak eta Konstituzio Auzitegiaren doktrina berzentralizatzaileak murriztutako eskumen-boterea berreskuratuko da eta eskumen-funtsa handituko da. Hori guztia 3 multzotan bilduko da: 1. multzoa) itundutako gai esklusiboak, hala nola euskal hizkuntza eta kultura, hezkuntza, segurtasuna, enplegu publikoa, zuzenbide zibila, Ekonomia Itunaren araubidea, erakunde-antolamendu propioa (erkidea, lurraldekoa eta udal-mailakoa) eta Justizia Administrazioa; 2. multzoa) baliabide naturalen eta lurraldeko azpiegituren jabari- edo ondasun-titulartasuna; eta 3. multzoa) laneko eta gizarte-babes edo -segurtasuneko ahalmen guztiak. Estatu Espainolean ezarrita dauden sistemekiko lankidetza- eta elkartasun-mekanismoak txertatuko dira.

*7.* Estatu Espainolarekiko bizikidetzarako eredu «berezi» eta «aldebikoa» ezarriko da, elkarren errespetuan eta aitzatespenean oinarritua, ez mendekotasunean, eta izaera konfederala izango du. Autogobernua babesteko berme-sistema bat izango du atxikita, eta, beraz, ezingo da aldebakarrekotasunez aldatu. Helburu horretarako, lankidetzarako eta prebentziorako mekanismoak ezarriko dira, eta eskumenen alorreko aldebikotasun-gatazkak eraginkortasunez ebazteko organo parekideak ere bai.

8. Esparru berri hau onartzeak ez du ekarriko Euskal Herriak historian zehar izan dituen eskubideak galtzea, eta ordenamendu juridikoak ezartzen duenaren arabera eguneratu ahal izango dira. Eutsi egingo zaio eskubide historikoen erreserba-klausulari.

9. Prozedura: oinarriak ezagutaraztea eta herritarren partaidetza, Legebiltzarrean onartzea eta balioztatzeko kontsulta egitea Gorteetan izapidetu aurretik.

EH Bildu

EH Bilduk paradigma-aldaketa proposatu du, **demokraziaren, ideologia-aniztasunaren eta legezkotasunaren** balio eta printzipioetan oinarrituta; izan ere, horiek dira kanpoko nahiz barruko instantzien betorik eta esku-sartzerik gabe euskal herritarren borondatea adierazteko bidea.

Subjektu politikoa **Euskal Herria** da, eta, horren baitan, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak, subjektu politiko eta juridikoak diren aldetik, **EAEko Euskal Estatua** osatuko dute. Ipar Euskal Herriarekin eta Nafarroarekin harreman konfederalak izango dituzte, lurralde horietako herritarrek hala erabakiz gero. Estatu Espainolarekiko harremanetan, berriz, berdintasun politikoz jokatuko du, aldebikotasun konfederala bermatuz eta euskal lurraldean eta herritarrengan ezarri beharreko politika publikoen gainean **ahalmen arauemaile eta exekutibo** esklusibo eta baldintzatu gabea erabiliz.

Euskal Herriaren subiranotasuna **herritarren erabakitzeko eskubidean** datza; herritarrek eskubidea dute lurraldeaz (estatusa eratzeaz eta EHko beste lurralde batzuekiko, Estatu Espainolarekiko, Europarekiko eta nazioartearekiko harremanez) eta funtsezko politika publikoez erabakitzeko. Printzipio eta eskubide historikoetan oinarritzen da, eta herri-galdeketak eta erreferendumak arautu eta kudeatuko ditu, herritarrek gai publikoetan zuzenean parte har dezaten. Prozedura zehatza eta eraginkorra da, aurrez finkatutako mugarik gabe eta berme-sistema propioarekin mamitzekoa.

Euskal herritarren **funtsezko eskubide eta askatasun** indibidual eta taldekoak arautu eta onetsiko dira, Espainiako arautegi organikoaren ahalmena mugatuz eta EAEko Euskal Estatuan esku hartzen duten agintaritza publiko guztiei lekua emanez. Erakunde-arkitektura berri baten bidez bereiziko dira botere legegilea, betearazlea eta judiziala, bai eta **laugarren boterea** ere: **gizartearena edo herritarrena**.

**Gizarte-eskubideek** bideratzeko berme guztiak dituzte. Euskara kohesio-elementua da Euskal Herrian, eta ezinbestekoa da **hizkuntza-eskubideak** arautzea. Politika publikoen bidez, **despatriarkalizazioa** eta benetako **genero-berdintasuna** sustatuko dira.

Estatus berriak lurralde historikoen **finantzen eta zerga-sistemaren autonomia** aitortuko du. Eguneratu egingo da Ekonomia Itunaren Sistemaren araubide finantzario, ekonomiko eta fiskala, eta alde biko batzorde batean koordinatuko da, Estatu Espainolaren eta EAEko Euskal Estatuaren artean.

**Toki-araubidearekiko** eskumena EAEko Euskal Estatuarena izango da, inolako baldintzarik gabe. Horrela, bada, lurralde-agintaritza euskal udalerriek izango dute, autonomia politiko eta finantzario eta guzti.

Estatus politikoak **eskumena** izango du **kanpo-harremanetako eta nazioarteko harremanetako politikan**, eta mekanismoak izango ditu Europar Batasuneko erabaki-eremuetan parte-hartzeko.

Deliberazio kolektibo ireki eta gardena proposatu da **estatus berria egituratzeko metodologia** gisa, hain zuzen ere herritarren benetako eta kalitatezko parte-hartzea bermatuko duena. Artikulatutako testua onetsi ostean, Estatu Espainolarekiko negoziaziorako baliozkotzeko eta legeztatzeko kontsulta egingo da, eta, ondoren, euskal herritarrek berretsi egingo dute, erreferendum loteslean.

ELKARREKIN-PODEMOS

"Guztion Ituna" proposamenaren arabera, Autonomia Estatutu berria ez da eskumenak arautuko dituen testu soila izango, baizik eta "hobeto bizitzeko akordio bat". Oinarri hauek izango ditu:

- Pertsonak eta alderdi soziala erdigunean jarri eta jendearen bizi-baldintzak hobetzeko tresna izan behar du.
- Emakume eta gizonen aukera-berdintasuna eta eskubideak (eta askatasuna) bermatuko dituen euskal gizartearen zimenduak jarri behar ditu.
- Euskal gizartearen nortasun-, kultura- eta politika-aniztasuna islatu behar ditu, eta errespetatu, giza eskubideen hiru belaunaldietan oinarrituta.

Proposamenaren lehen zutabea: **HOBETO BIZITZEA**. Erakundeek aukerak sortzeko betebehar politiko eta morala dute, herritarrak aukera horietaz balia daitezen berdintasunez. Horretarako, ezinbestekoak dira honako hauek blindatzea: eskubide sozialak (diru-sarrera bermatua, hezkuntza, osasuna, gizarteratzea, zainketak eta haurtzaro eta nerabezaroa); hiri-eskubidea, hiri-ondasunez gozatzeko eskubidea eta etxebizitza-eskubidea; gizarte oparo eta iraunkorra, guztiontzako aukerak sortuko dituena; enplegu nahikoa eta kalitatekoa sortuko duen eta elkartasunean oinarritutako gizarte-aurreikuspeneko sistema izango duen gizartea; bidezko fiskalitatea, birbanatzailea eta iraunkorra; eta kultura eskuragarri izatea, horretan parte hartzeko aukera eta hizkuntza-eskubideak.

Bigarren zutabea: **EMAKUME ETA GIZONEK BERDINTASUNEAN BIZI, ELKARREKIN BIZI ETA ERABAKI BEHAR DUTE.** Horretarako, bi motatako neurriak hartu behar dira. Alde batetik, erantzunkidetasun eraginkorra bermatzeko neurriak, emakumeek lan-merkatuan sartzeko eta lanpostu batzuk lortzeko diskriminaziorik jasan ez dezaten, zainketen ondorioz. Eta bestetik, emakumeak indarkeria matxistarik gabe bizi ahal izateko neurriak. Izan ere, berdintasunean hobeto biziko gara gizonak eta emakumeak.

Gizarte-itunaren hirugarren zutabea: **BIZIKIDETZA DEMOKRATIKOA**. Gure ustez, bi euskarri izan behar ditu horrek: lehenik, giza eskubideen berme integrala, bizikidetzaren oinarri diren aldetik; eta bigarrenik, biktima guztien (Gerra Zibilaren eta frankismoaren biktimen zein Euskal Herriko berezko indarkeriaren biktimen) oroimena eta duintasuna zaintzea, gertatutako giza eskubideen urraketa guztiak agerian jarriko dituen kontakizun inklusiboa abiapuntu hartuta. Gainera, Autogobernuko Ponentziarentzat funtsezkoa da, era berean, kultura eta erlijioen arteko bizikidetza eta ijito herriak pobrezia eta desberdintasun handiagoak jasaten dituela onartzea.

Azken zutabea: **GEHIAGO ERABAKITZEA.** Horretan, erabakitzeko eskubidearen bi dimentsio bereizten dira: bata gizarteari lotua eta bestea lurraldeari lotua. Gizarteari lotutako dimentsioak erakundeen eta herritarren arteko harreman-mota berria aurreikusi eta erakunde-antolamenduaren eredu berria aldarrikatzen du. Eredu horretan, erabakiak hartzeko gunea hurbilago izango dute herritarrek, eta erabakitzeko ahalmen handiagoa izan behar dute beren bizitzan zuzeneko eragina duten gaien inguruan. Lurraldeari lotutako dimentsioari dagokionez, eskubide historikoekin edo nazio- edo kultura-egintzarekin lotu beharrean, herritarren borondatearekin lotzea proposatzen du Autogobernuko Ponentziak, kanadar-quebectar eredua eta horren Argitasun Ituna erreferentziatzat hartuko dituen formula baten bidez.

## Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak (PSE-EE)

Euskadiko sozialistok harro gaude eraiki dugun Euskadik historiako aurrerapen ekonomikorik eta gizarte-kohesiorik handiena lortzeko erabiltzen jakin duelako autogobernua. Euskal herritar gehienekin bat gatoz autogobernu-gaitasun handiagoa lortzeko gogoan. 79ko bizikidetza-ituna eguneratu egin nahi dugu, eta teknologiaren, demografiaren, migrazioen, ingurumenaren, kulturaren eta gizarte-babesaren erronketara egokitu, aniztasuna, elkartasuna eta berdintasuna bermatuz. Bizikidetza-itun solidario, bidezko eta erabilgarriago bat proposatzen dugu, inor ez dadin mehatxatua sentitu, identitateagatik eta joera politikoengatik.

Gernikako Estatutua berritzea proposatzen dugu, ordenamendu juridikoa errespetatuz betiere, eta indarreko ordenamendu konstituzionala eguneratzeko aukera. Defendatzen dugu edukiak bezain garrantzitsuak direla prozedurak, legezkotasuna, elkarrizketa eta adostasuna.

Estatutu berriak erkidego politikoaren proiektua babestu beharko du, eta indarreko legeei jarraikiz testu horrek duen lurralde-irismena. Euskal gizartea herritarren borondatetik sortutako nazioa da gure ustez, aniztasuna eta identitate eta proiektu desberdinak aintzat hartzen dituena, Espainiaren eta Europaren baitan. Eta herritarrek bertako bi hizkuntza ofizialak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea dute.

Europaren baitan, Espainiako gainerako lurraldeekin partekatutako proiektu solidario bat proposatzen dugu, gure berezitasunak bermatuko dituen eta aurrerabidean eta kohesionatuta dagoen komunitate bat eratzeko aukera emango diguna, gure eskumenak (dagoeneko aitortuta ditugunak eta hobetu daitezkeenak) erabiliz.

Gure iritzian, eskumen-subiranotasunak zirkulu zentrokideetan (herrian, komunitate nazionalean, Estatuan, Europar Batasunean) partekatzea izango da irtenbide onena eta bakarra, gero eta harreman gehiago dituen mundu honetan askotariko identitateak eta herritar berdinak bizikide izan daitezen.

Proposatzen dugu eskumenak blindatzea, berriro zentralizatzeko saiakerei aurre egiteko; zerbitzu publikoak blindatzea, murrizketa-ahaleginei aurre egiteko; eta gizarte-eskubide berriak eta genero-berdintasuna (politika publikoen zeharkako ardatza) Estatutuan berariaz jasotzea. Halaber, beraien eskubide eta interesei eragiten dieten erabaki politikoetan parte hartzeko eskubidea bermatu nahi diegu herritarrei, Konstituzioaren eta Estatutuen baldintzen barruan betiere.

Estatutuaren erreformak autonomia-erkidego barrurantz hobetu behar du autogobernua, gizarte- eta eraginkortasun-irizpideetan oinarrituz eskubide eta betebeharren alorreko berdintasunean aurrera egiteko, lurraldearen, zergen eta gizartearen alorreko kohesio handiagoarekin eta kudeaketa publiko garden eta eraginkorragoarekin.

Estatuko gobernuari dagokionez, Euskadik eskumen berezia duen gaietan —Ekonomia Ituna, segurtasuna, polizia...— aldebikotasun-printzipioa aplikatzea proposatzen dugu, eta eskumen konkurrenteetan batera parte hartzea, lankidetzako mekanismo federalak (senatua, batez ere) baliatuz.

Proposatzen dugu Europar Batasunarekiko harremanei ekitea, batetik, egungo konstituzioaren mugen barruan, EBko politikan parte hartzeko mekanismoak hobeto zehazteko, bereziki Euskadiren eskumenekoak diren gaietan, eta, bestetik, kanpo-harremanetarako malgutasun handiagoa ahalbidetzeko.

Gure asmoa da, kulturak, hizkuntzak eta ezaugarri sozioekonomikoak partekatzen ditugun erkidego eta eskualdeekin borondatezko lankidetza egon dadila.